

BILBAO TURISMOK EUSKAL TURISMO SEKTOREARI EMATEN ZAION I. ATRAE SARIA JASO DU, TURISMOA ERAKARTZEKO EUSKADIKO AGENTZIEN ESKUTIK

- **Turismoa Erakartzeko Euskadiko Agentzien Elkarteak (ATRAE), Aipamen Berezia eman dio Turismo Aktiboan espezializatutako Troka Abentura enpresari**
- **Ondoren, workshop bat egin da 15 erakarpen agentziarekin –beste leku geografiko batzuetatik agentziak dauden lekura turistak ekartzeaz arduratzen direnak– eta 46 turismo hornitzaileekin. Sinergiak sortzeko eta harreman profesionalak estutzeko pentsatutako topaketa da**

Gasteizen, 2018ko azaroaren 21ean.- Turismoa Erakartzeko Euskadiko Agentzien Elkarteak (ATRAE), I. ATRAE Saria eman dio gaur goizean Bilbao Turismori. Horrez gain, Turismo Aktiboan espezializatutako Troka Abentura enpresak Aipamen Berezia jaso du.

Jardines de Uleta Hotelean (Vitoria-Gasteiz) egin den ekitaldian Maider Etxebarria Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Ostalaritza Zuzendariak eta Euskadiko turismoaren sektoreko hainbat erakundek eta enpresak hartu dute parte.

Bilbao Turismori eman zaion I. ATRAE Sariari dagokionez, esan behar da erakundeak, nazioarteko ekitaldi handiak erakarriz eta Bilbora eramanez egin duen lana aintzatetsiz eman zaiola, horrela Euskadi osorako sustapen handiagoa lortu baitu. Saria Kepa Olabarrieta Bilbao Turismoren Convention Bureau izenekoaren zuzendariak jaso du.

Beste alde batetik, Turismo Aktiboan espezializatutako Troka Abentura (Gorliz, Bizkaia) enpresak Aipamen Berezia jaso du, bere profesionaltasun, gardentasun eta ingurumenarekiko errespetu balioak aintzatetsiz eta beti ere sinergiak sortzeko eta turismo arloko eragile guztiekin lankidetzan aritzeko egin duen ahaleginarengatik, turismoa erakartzen duten eragileekin, tokiko eragileekin edo Euskal Herriko beste herri batzuetakoekin, eta baita lehiakide izan daitezkeen enprekin ere. “Aipatu behar da Troka Abenturak tarifa berezia eskaintzen dizkiela turismoa erakartzen duten eragileei, eta proaktiboak direla eragile horiek eskatzen dituzten produktu berriak sortzeko orduan. Horrez gain, oso aktiboak dira Euskadi turismorako jomuga gisa sustatzeko orduan, eta AKTIBAn inplikaturik daude, Euskadiko turismo aktiboaren sektorea ordezkatzuz”, adierazi du Juan del Hoyo ATRAEko presidentek.

Sariaren eta Aipamen Bereziaren helburu nagusia, Euskadiren turismo proiektioari laguntzeko lan azpimarragarria egin duten bi erakunde horiek guztien aurrean aintzatestea da. Halaber, nabarmentzekoa da, baita ere, Turismoa Erakartzeko Euskadiko Agentzien lana ulertu, erraztu,

balioan jarri edo/eta bultzatu egin dutela, sinergiak eta lankidetzak sortuz, alde guztien onerako.

Juan del Hoyo ATRAeko presidentek adierazi duen bezala, “ziur gaude aintzatespen publiko hori sari eta bultzada izango dela saria lortu duten pertsonentzat, enpresentzat edo erakundeentzat, eta baita euskal industriaren kide diren Turismoa Erakartzeko Agentzien erakarren garrantzitsua ikusgai bilakatzeko eta balioan jartzeko ere”

Workshop-a

Sariak banatu ondoren, workshop bat egin da 15 erakarren agentziarekin –beste leku geografiko batzuetatik agentziak dauden lekura turistak ekartzeaz arduratzen direnak– eta 46 turismo hornitzaileekin (turismo baliabideak, ostatuak, turismo aktiboko enpresak, jatetxeak, upategiak, turismo zerbitzuetako enpresak...). Euskadiko turismoaren eskaintzan dauden berrikuntzak ezagutzeko, sinergiak sortzeko eta harreman profesionalak estutzeko pentsatutako topaketa da, eta baita Turismoa Erakartzeko Agentziek egiten duten komertzializazio lana balioan jartzeko ere.

Informazio gehiago:

Ane Mendibe

BIOK Comunicación Estratégica

636 878 248 / mendibe@biokcomunicacion.com